

EMAKUMEEK JASATEN DABEN INDARKERIAREN KONTRAKO NAZINOARTEKO EGUNA

ZEMENDIAK 25 de noviembre

Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres


Mungiako Alkate-udalburuak, udal ordezkari politiko guztien adostasunagaz, honako hau adierazoten dau:

1. Gure udalak bat egiten dau **Berdinsareak egindako Adierazpen Institutuzionalagaz**. Aurton **sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa daukela** eta urterik urtera gora egiten jarraitzen dauela azpimarratu gura dogu. Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskek eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren kontrako delituen ehunekoak bere gora egin dau.
2. Mobimendu feministak eta adituek adierazten dabe **horren arrazoiaik genero-ikuspegidun kalidadeko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana dirala**. Era berean, adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak zabalduz doazela dinoskue, eta bide beretik doazela umeen sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarra bere. Sexu-indarkeria emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko bidea izateari garrantzia kendu eta legitimatu egiten da.
3. Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura daukiezan estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dabez, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan daien, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Horregaitik guztiagaitik, honako konpromiso honeek hartzen doguz:
 - a. **Indarkeria matxista prebenitzeko tokiko estrategia indartzea**, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarritz.
 - b. Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien **detekzioa eta arreta goiztiarra hobetzea, tokiko koordinazio-protokoloen bidez**.
 - c. **Sexu-indarkeriaren biktimakaz** esku hartzen daben profesionalentzat prestakuntza-programak egitea.
 - d. **Sentsibilizazio-programak garatzea** herritarraz, eta batez bere guraso, irakasle eta IGEakaz, **genero-ikuspegidun kalidadeko sexu-hezkuntzaren** beharri buruzkoak.
 - e. **Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik** hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.
4. Honi jarraituta, Udalak dei egiten deutse herritar guztiei, **zemendiaren 25ean (zapatua), 19:30ean**, udaletxe inguruan egingo dan **konzentrazioan parte hartu daien**.

La Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Mungia, de conformidad con la totalidad de la representación política municipal, declara:

1. La adhesión a la **Declaración Institucional de Berdinsarea**, que es esta ocasión quiere poner la atención en la **creciente incidencia de la violencia sexual entre menores**, que sigue aumentando año tras año. Según diferentes informes, hasta un 40% de las víctimas de delitos sexuales son menores de edad, mayoritariamente niñas y adolescentes. Aumenta también el porcentaje de delitos contra la libertad sexual cometidos por menores de edad.
2. El movimiento feminista y las expertas **apuntan como causas la ausencia de educación sexual de calidad con perspectiva de género** y la **falta de transmisión de los valores sociales adecuados en las familias y entornos escolares**. Así mismo, se alerta sobre la difusión entre los menores de mitos y estereotipos de género y la iniciación sexual temprana a través de la pornografía. Se banaliza y legitima el ejercicio de la violencia sexual como forma de dominación sobre las mujeres.
3. Ante ello, las instituciones vascas han de promover estrategias y mecanismos para que mujeres y niñas tengan un desarrollo de vida plena, en condiciones de libertad y seguridad. De aquí nuestro compromiso a :
 - a. **Reforzar la estrategia local de prevención de la violencia machista** disponiendo las estructuras, recursos, servicios o programas para hacer frente a la violencia sexual entre personas menores.
 - b. **Mejorar la detección y atención precoz** de violencias sexuales en el entorno de las víctimas menores a través de **protocolos locales de coordinación**.
 - c. **Implementar programas de formación** para las y los profesionales que intervienen con víctimas de violencias sexuales.
 - d. **Desarrollar programas** de sensibilización con ciudadanía, y especialmente madres, padres y profesorado, con AMPAS, sobre la necesidad de una **educación sexual de calidad con enfoque de género**.
 - e. Contribuir desde los **espacios de educación no formal** a desarrollar procesos educativos que refuercen las actitudes contra la violencia machista en menores.
4. Asimismo, hacemos un llamamiento a nuestras vecinas y vecinos para acudir a la **concentración** convocada para el **sábado 25 de noviembre, a las 19:30** horas en las inmediaciones del ayuntamiento.

Mungian, 2023ko zemendiaren 24an



Alaitz Erkoreka Baraiazarra
ALKATEA